

1997ko ABUZTUAREN 6ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamazazpiko abuztuaren seiean, gaeko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziak ez dira agertu, eta ez dute inolako arrazoirik eman; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTEN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

2.- LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO U-2 SEKTOREKO ALDAKETAREN LEHEN ONARPENA

IKUSIRIK.- INSALUS URAK, S.A. eskatutako, Abad Letratuak eta Zulaika Arsuaga eta Muñagorri Pala Arkitektuak osatutako Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-2 Sektoreko Aldaketarako agiriak ikusirik.

KONTUTAN HARTUAZ.- 1997ko Ekainaren 18an amaitu zela, Proiektuaren Aurrerapena jendaurrean egoteko epea, inolako iradokizunik aurkeztu ez delarik.

KONTUTAN HARTUAZ.- Udaleko Zerbitzu Teknikoak luzatutako txostenen arabera, partikularrak ez jabetzapengarria den irabazizko aprobetxamendu portzentualaren ebazpenei buruz, Arau Subsidiarioen Aldaketa agirian jasotzen den zehaztasuna, planeamendu orokorrari dagokion ebazpena ez izanik, eraginik gabekoa kontsideratzen da, beraz, behin behineko agiritik kendu egin behar da.

Guzti horregatik, Udal Batzarrari, zera proposatzen zaio:

- 1.- Insalusko Urak, S.A.k aurkeztutako, Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-2 Sektoreko Aldaketaren agiriari, lehen onarpena ematea.

Agiri hori zuzendu egin beharko da, Partikularrak ez jabetzapengarria den irabazizko aprobetxamendu portzentualaren ebazpen eta zehazpenei buruz egiten diren erreferentzi guztietan, bakarrik, Udalari, dagokion hirigintzazko aprobetxamendua uzteko, jabearen betebeharra seinalatuz.

- 2.- Agiri hori jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala eta egunkari batean argitaratzen den azkenengo datatik kontatuko delarik.

Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-2 Sektoreko aldaketaren lehen onarpenerako proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

3.- GIZARTE LAGUNTZAILEAREN BEHIN BETIRAKO KONTRATAZIOA

Lizartzako Udaleko langileen plantillan, Gizarte Laguntzailearen lanpostua dago, gaur egun, MARGA OTEGI SEGUROLAK, behin behineko kontratuarekin betetzen duena.

Hiru urte igaro dira, behin behineko kontratuarekin dagoenetik, eta Legeek agintzen dutenaren arabera, kontratu hori, behin betikoa bihurtzea proposatzen da.

Gizarte Laguntzailearen Behin Betirako Kontrataziorako proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

4.- LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEAREN IZENDAPENA

IKUSIRIK.- 1996ko Abenduaren 11ko, 238 zenbakidun, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako, Liburutegiko Laguntzaile Lanpostua betetzeko eginiko deiaren arabera burutu diren azterketak amaitu, kalifikatu eta argitaraturik, Epaimahaiak eginiko proposamena.

Horren arabera, proposatzen da:

LEHENA.- Liburutegiko Laguntzailearen kontrataziorako eginiko azterketen arabera, aurreago aipatzen dena izendatzea:

AINHOA GARAIKOETXEA ALTUNA

21,25 Puntu

BIGARRENA.- Erabaki hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeitamar eguneko epea luzatzea, lanpostuaren jabetza hartu ahal izateko.

Liburutegiko Laguntzailearen Izendapenerako proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

5.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

MINICENTRALES DEL ARAXES, Kanalarari altuera altxatzeko baimena.

CARMEN KARRERA MINTEGI, Mekola etxean sukaldea eta zorua berritzeko baimena.

GASPAR BARRIOLA IRAZUSTA, Kale Nagusia 26ean, Etxeaundi etxeari erantsita dagoen garajeari teilatua konpondu eta erretila emateko baimena

JESUS BARRIOLA IRAZUSTA, Gogortzanea etxeari erretila emateko baimena.

PEDRO AMIAMA BIURRUN, Zumitza Baserrian errekarra ematen duen fatxada konpontzeko (harria atereaz) eta bertan dagoen leiho bat haunditu eta sukalde guztia berritzeko baimena.

M^a JESUS ALTUNA, Plaza Aurre, 4.a esk.ko etxeko leihoak aluminiozkoak jartzeko baimena.

MARIA GARMENDIA GARMENDIA, Zubiaurre, 4.a ezk.ko etxebizitzako ateak eta logal bateko zorua berritzeko baimena.

JOSE M^a AROZENA, Lezine azpian harrizko pareta egiteko baimena.

LIZARTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 3. AREAREN URBANIZAZIO-PROIEKTUKO LEHEN FASEAREN HASIERAKO ONARPENA

1988ko ekainaren 14ean behin betiko onartutako Lizartzako Arau Subsidiarioetan aurreikusitako 3. Arearen Urbanizazio Proiektuaren 1 fasea aurkeztu da 1997ko uztailen; Jose Maria Bravo Jaunak idatzi du proiektua.

Proiektuaren bidez, aipatu Sektorean burutu beharreko urbanizazio orkorreko 1. faseko obrak xedatu nahi dira, udalerrian indarrean dagoen planeamendu orkorreko aurreikuspenen arabera; Sektore horretako zati bateko lursailak ere xedatu nahi dira; Lizartzako Udalak Babes Ofizialeko 38 etxebizitza, garajeak eta anexoak eraikitze osatu duen azalerako eskubidearen barruan sartzen diren lursail horiek.

Ikusitakoaren aurrean, eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 m) artikuluan xedatutakoari jarraiki, apirilaren 14ko 7/1997 Legearen 4. artikulua emandako idazketa berriaren arabera, neurri liberalizatzaileei buruzko lurzoruari dagokionez eta Elkargo Profesionalei dagokionez, eta ekainaren 30eko 17/1994 Legearen arabera, Neurri Larriei buruzkoa etxebizitzari dagokionez eta planeamendu eta hirigintzazko kudeaketa-instrumentuen izapidetzeari dagokionez, honako hau:

ERABAKI DUT:

- 1.- Jose Maria Bravo Albizu Jaunak idatzitako 3. Arearen Urbanizazio Proiektuaren 1. fasea onartzea hasiera batean.
- 2.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintziako egunkari hedatuenetako batean argitaratzea.
- 3.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, argitalpenen azken egunaren ondorengo egunetik hasita, aztertua izan dadin eta egoki diren arrazoibideak aurkez daitezzen.

6.- URJENTZIZKO GAIA

Alkateak hitza harturik, zera dio:

Batzarrerako deia egin ondoren, presazko gaia bat sortu dela eta, gauden garaia kontutan harturik, batzar honetan urjentziz gaia tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartua izan da.

3. AREAKO FINKEN DESKRIPTION BERRIA ERREGISTROAN IDAZTEKO ESKAERA EGITEA

Lizartzako Arau Subsdiarioek hiri-lurzoru gisa sailkatutako eta "3. Area" izeneko planeamendu-eremua zehazten dute; aipatu areak 13.390 m²ko azalera dauka eta, bertan, gehienez ere, babes ofizialeko 38 etxebizitza eraiki daitezke. Desjabetza de bere hirigintza-kudeaketarako ezarri den iharduketa-sistema.

Arestian aipatutako udalerraren planeamendu orokorra garatzeko Lizartzako Udalak egindako izapideei jarraiki (planeamendu 1988ko ekainaren 14an onartu zuen behin betiko Gipuzkoako Foru Aldundiak), desjabetza bidez jaso

dira eta behar bezala inskribatu dira Lizartzako Udalaren alde lehen aipatutako Hirigintza Arean eraiki nahi diren erriki berrietako lur guztiak.

Nolanahi ere, eta eraikuntza horien gauzatze eraginkorra ahalbidetzeko asmoz, beharrezkoa da -aipatu azalera guztia finka bakar batean erregistroan bildu edo inskribatu ostean- Jabetzaren Erregistroak finka horren deskripzio berria erregistroan idaztea, administrazio-egiaztagiriaren bidez idazki horri laguntzen dion dokumentuaren arabera; azken batean, erregistro-inskripzioa azalera horren errealtate fisikoa egokitu nahi da.

Esandakoaren arabera, eta ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretuaren 307.8 eta 308 artikuluetan xedatutakoari jarraiki (horren bidez Lurzoru Erregimenaren eta Hiri Antolamenduaren Legeari buruzko Testu Moldatua onartu da), Jabetzaren Erregistratzaile jaunari zera eskatzea, proposatu da: Lizartzako Udalerriko planeamendu orokorraren erabakien egikaritzea betez, eta, dagokion hirigintza-organoak hura onartu eta gero, finka horien deskripzio berria erregistroan idatzi dezala, honela gelditzen direlarik:

1 Partzela

- .- **Deskribapena:** Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 3. Arean kokatutako, zazpi mila bostehun eta hirurogeitamasei metro eta zortzi dezimetro karratu dituen HIRI LURSAILA. Mugak: Ifarraldetik, Ikastola, Txirrita Gudariaren Plaza eta alde batean herri bidearekin; Hegoaldetik, herri bidea eta Laxaroeneko zubiarekin; Ekialdetik, Frontoia, Sendagilearen etxea eta herri bidea; eta Mendebaldetik, Araxes Ibaia eta Laxaroeneko Zubia.

- .- **Jabea:** LIZARTZAKO UDALA

- .- **Titulua eta Inskripzioa:** 3. Arean kokatu eta Nahitaezko Jabego Kentze eta Salerosketen bidez, Lizartzako Udalak erosi eta finka bakar batetan elkartutako lurrak. Tolosako Jabego Erroldaritzan bere inskribapenerako aurkeztu eta egiteke dagoena.

.- Zamak: Ez du zamarik.

.- Emandako Azalera: 7.576,8 m2 dituen finka osoa.

3. Areaki dagokion Lizartzako Arau Subsidiarioetan aurreikusten diren ordenazio eta ebazpenekin ados, erregistroko inskribapenerako sortzen diren partzelen konfigurazio eta deskribapena, era honetan gelditzen da:

ERAIKIGARRI DIREN PARTZELAK

1 Partzela

.- Deskribapena:

588 m2.ko azalera duen, P-1 bezala identifikatu eta, eraikigarria den bizitegirako partzela. Partzela honetan, oinan gehieneko 588 m2.ko okupazioa izango duen, etxebizitza kolektiboen edifikagarri diren hiru bloke eraiki ahal izango dira; perfila, sotoa, merkataritzako behe oina, altueran, hiru oin eta estalki azpia, garaje, lokal komertzialak, trasteroak eta gehieneko 18 etxebizitzetan banatua.

Mugak: Ifarraldetik, Espazio libreko Sistema Orokorrekin (Txirrita Gudariaren Plaza); Hegoaldetik, Herriko Bide-sare sistemarekin; Ekialdetik, Irakaskuntza Ekipamenduko Sistema Orokorrekin; eta Mendebaldetik, gune berde eta Herriko Bide-sarearekin.

Eraikuntzak okupatzen ez duen sotoaren estalkiak, espaloi eta gune libreak osatuko dute, erabilera publikoko zortasuna izango duelarik. Behe oina, Ifarraldetik, 3 metroko zabaleran atzeratuko da, 42 metroko luzeran, eraikuntzaren alienazioko altueraren arabera, erabilera publikoko zortasuna izango duten portxeak osatuaz.

Baita ere, behe oinean, eraikuntzaren erdian, 5 metroko zabalera, eta Ifarraldetik Hegoaldera doan, oinezkoentzat, erabilera publikoko zortasuna izango duen, portxe bat osatuko da.

Hirigintza aldetik, finka hau, partzela minimoa eta zatiezina da. Eraikitzen den unetik, hiru azpipartzeletan banatu ahal izango da, B-1, B-2 eta B-3, hiru ataritan banatuaz, sotorako igarotze eta sarbiderako tokatzen diren zortasunak kontutan hartuaz. Baita ere, aipatutako azpipartzela hoiiek, jabetza horizontaleko erregimenean banatu ahal izango dira.

.- Zortasunak:

Ifarraldetik eta behe oinan, 3 metroko zabalera eta 42 metroko luzera izango duen, erabilera publikoko portxe baten zortasuna izango du. Eraikuntzaren erdian, 5 metroko zabalera izango duen, erabilera publikoko portxe baten zortasuna izango du.

.- Hirigintzazko Arauak:

Partzela hau, Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Araudian aurreikusten den hirigintzako erregimenari lotuta gelditzen da.

.- Zamak:

Zamatik libre.

.- Adjudikazioa:

Finka guzti honen gaineko jabaria, LIZARTZAKO UDALARI adjudikatzen zaio.

2 Partzela

.- Deskribapena:

402 m2.ko azalera duen, P-2 bezala identifikatu eta, eraikigarria den bizitegirako partzela. Partzela honetan, oinan gehieneko 198 m2.ko okupazioa izango duen, batutako familiabakarreko 4 etxebizitza eraiki ahal izango dira; perfila, erdisotoa, behe oina, oin altua, estalki azpia, garaje eta trasteroetan banatua. Eraikuntzak hartzen ez duen azalera, jardinetarako erabiliko da.

Mugak: Ifarraldetik, Irakaskuntza Ekipamenduko Sistema Orokorra eta Herri Bidea, Hegoaldetik, Pasealeku publikoa eta 3 zenbakidun eraikigarria den partzela; Ekialdetik, oinezkoentzat pasealeku publikoa eta Irakaskuntza Ekipamenduko Sistema Orokorra; Mendebaldetik, herri bidea eta 3 zenbakidun eraikigarria den partzela.

Hirigintza aldetik, finka hau, partzela minimoa eta zatiezina da. Eraikitzen den unetik, jabetza horizontaleko erregimenean banatu ahal izango da.

.- Zortasunak:

Erdisotoaren nibelean, 3 eta 4 zenbakidun eraikigarri diren partzelen gain, 5 metroko zabalera izango duen, garajetako sarrerako karrilak hartzen duen azalera, bere aldeko pasabidezko zortasuna izango du.

Kalearen nibelean eta eraikuntzak hartzen ez duen, hegomendebalde aldetik, erabilera publikoko zortasuna du.

.- Hirigintzazko Arauak:

Partzela hau, Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Araudian aurreikusten den hirigintzako erregimenari lotuta gelditzen da.

.- Zamak:

Zamatik libre.

.- Adjudikazioa:

Finka guzti honen gaineko jabaria, LIZARTZAKO UDALARI adjudikatzen zaio.

3 Partzela

.- Deskribapena:

408 m2.ko azalera duen, P-3 bezala identifikatu eta, eraikigarria den bizitegirako partzela. Partzela honetan, oinan gehieneko 198 m2.ko okupazioa izango duen, batutako familiabakarreko 4 etxebizitza eraiki ahal izango dira; perfila, erdisotoa, behe oina, oin altua, estalki azpia, garaje eta trasteroetan banatua. Eraikuntzak hartzen ez duen azalera, jardinetarako erabiliko da.

Mugak: Ifarraldetik, Herri Bidea eta eraikigarria den 2 partzela; Hegoaldetik, Oinezkoentzat Pasealeku publikoa eta 4 zenbakidun eraikigarria den partzela; Ekialdetik, oinezkoentzat pasealeku publikoa eta 2 zenbakidun eraikigarria den partzela; Mendebaldetik, herri bidea eta 4 zenbakidun eraikigarria den partzela.

Hirigintza aldetik, finka hau, partzela minimoa eta zatiezina da. Eraikitzen den unetik, jabetza horizontaleko erregimenean banatu ahal izango da.

.- Zortasunak:

Erdisotoaren nibelean, 4 zenbakidun eraikigarri den partzelaren gain, 5 metroko zabalera izango duen, garajetako sarrerako karrilak hartzen duen azalera, bere aldeko pasabidezko zortasuna izango du. Baita ere, eta 5 metroko zabalera izango duen, garajetako sarrerako karrilak hartzen duen azalera, 2 zenbakidun eraikigarria den partzelaren alde, pasoko zortasuna izango du.

Kalearen nibelean eta eraikuntzak hartzen ez duen, hegomendebalde eta iparmendebaldetik, erabilera publikoko zortasuna du.

.- Hirigintzako Arauak:

Partzela hau, Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Araudian aurreikusten den hirigintzako erregimenari lotuta gelditzen da.

.- Zamak:

Zamatik libre.

.- Adjudikazioa:

Finka guzti honen gaineko jabaria, LIZARTZAKO UDALARI adjudikatzen zaio.

5 Partzela

.- Deskribapena:

416 m2.ko azalera duen, P-4 bezala identifikatu eta, eraikigarria den bizitegirako partzela. Partzela honetan, oinan gehieneko 198 m2.ko okupazioa izango duen, batutako familiabakarreko 4 etxebizitza eraiki ahal izango dira; perfila, erdisotoa, behe oina, oin altua, estalki azpia, garaje eta trasteroetan banatua. Eraikuntzak hartzen ez duen azalera, jardinetarako erabiliko da.

Mugak: Ifarraldetik, Herri Bidea eta eraikigarria den 3 partzela; Hegoaldetik, Oinezkoentzat Pasealeku publikoa eta herri bidea; Ekialdetik, oinezkoentzat pasealeku publikoa eta 3 zenbakidun eraikigarria den partzela; Mendebaldetik, herri bidea.

Hirigintza aldetik, finka hau, partzela minimoa eta zatiezina da. Eraikitzen den unetik, jabetza horizontaleko erregimenean banatu ahal izango da.

.- Zortasunak:

Erdisotoaren nibelean, 2 eta 3 zenbakidun eraikigarri diren partzelen gain, 5 metroko zabalera izango duen, garajetako sarrerako karrilak hartzen duen azaleran, bere aldeko pasabidezko zortasuna izango du.

Kalearen nibelean eta eraikuntzak hartzen ez duen, iparmendebalde aldetik, erabilera publikoko zortasuna du.

.- Hirigintzazko Arauak:

Partzela hau, Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Araudian aurreikusten den hirigintzako erregimenari lotuta gelditzen da.

.- Zamak:

Zamatik libre.

.- Adjudikazioa:

Finka guzti honen gaineko jabaria, LIZARTZAKO UDALARI adjudikatzen zaio.

5 Partzela

.- Deskribapena:

423 m2.ko azalera duen, P-5 bezala identifikatu eta, eraikigarria den bizitegirako partzela. Partzela honetan, oinan gehieneko 198 m2.ko okupazioa izango duen, batutako familiabakarreko 4 etxebizitza eraiki ahal izango dira;

perfila, erdisotoa, behe oina, oin altua, estalki azpia, garaje eta trasteroetan banatua. Eraikuntzak hartzen ez duen azalera, jardinetarako erabiliko da.

Mugak: Ifarraldetik, Herri Bidea eta berdegunea; Hegoaldetik, herri bidea eta 6 zenbakidun eraikigarria den partzela; Ekialdetik, herri bidea; Mendebaldetik, berdegunea eta 6 zenbakidun partzela eraikigarria.

Hirigintza aldetik, finka hau, partzela minimoa eta zatiezina da. Eraikitzen den unetik, jabetza horizontaleko erregimenean banatu ahal izango da.

.- Zortasunak:

Erdisotoaren nibelean, 6 zenbakidun eraikigarri den partzelaren gain, 5 metroko zabalera izango duen, garajetako sarrerako karrilak hartzen duen azalera, bere aldeko pasabidezko zortasuna izango du.

Kalearen nibelean eta eraikuntzak hartzen ez duen, hegomendebalde aldetik, erabilera publikoko zortasuna du.

.- Hirigintzazko Arauak:

Partzela hau, Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Araudian aurreikusten den hirigintzako erregimenari lotuta gelditzen da.

.- Zamak:

Zamatik libre.

.- Adjudikazioa:

Finka guzti honen gaineko jabaria, LIZARTZAKO UDALARI adjudikatzen zaio.

6 Partzela

.- Deskribapena:

438 m².ko azalera duen, P-6 bezala identifikatu eta, eraikigarria den bizitegirako partzela. Partzela honetan, oinan gehieneko 198 m².ko okupazioa izango duen, batutako familiabakarreko 4 etxebizitza eraiki ahal izango dira; perfila, erdisotoa, behe oina, oin altua, estalki azpia, garaje eta trasteroetan banatua. Eraikuntzak hartzen ez duen azalera, jardinetarako erabiliko da.

Mugak: Ifarraldetik, Espaloi publikoa eta berdegunea; Hegoaldetik, herri bidea; Ekialdetik, herri bidea eta 5 zenbakidun partzela eraikigarria ; Mendebaldetik, bide, espaloi publikoak eta berdegunea.

Hirigintza aldetik, finka hau, partzela minimoa eta zatiezina da. Eraikitzen den unetik, jabetza horizontaleko erregimenean banatu ahal izango da.

.- Zortasunak:

Erdisotoaren nibelean, 5 zenbakidun eraikigarri den partzelaren gain, 5 metroko zabalera izango duen, garajetako sarrerako karrilak hartzen duen azalera, bere aldeko pasabidezko zortasuna izango du.

Kalearen nibelean eta eraikuntzak hartzen ez duen, iparmendebalde aldetik, erabilera publikoko zortasuna du.

.- Hirigintzazko Arauak:

Partzela hau, Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Araudian aurreikusten den hirigintzako erregimenari lotuta gelditzen da.

.- Zamak:

Zamatik libre.

.- Adjudikazioa:

Finka guzti honen gaineko jabaria, LIZARTZAKO UDALARI adjudikatzen zaio.

ERABILERA ETA ZERBITZU PUBLIKORAKO LURRAK

A Partzela.- Bideak, Espaloiak eta Aparkalekuak

.- Deskribapena:

Partzela irregularra, alde guztietatik, 1, 2, 3, 4, 5 eta 6 zenbakidun eraikigarriak diren partzelekin mugatzen duena.

.- Azalera:

4.901,8 m2.ko azalera du.

.- Helburua:

Bide, Aparkaleku eta Espaloiak.

.- Kalifikazioa:

Jabari eta Erabilera Publikoko Ondasuna.

.- Zamak:

Zamatik libre.

.- Hirigintzazko Araudiak:

Partzela honen titularren eskubide eta betebeharrak, Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioek aurreikusten dituzten ebazpen eta mugen barruan gauzatuko dira.

.- Adjudikazioa:

Finka guzti honen gaineko jabaria, LIZARTZAKO UDALARI adjudikatzen zaio.

Proposamena, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko bederatzit'erdiak direnean.